

ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN

BADUGU ESKUBIDEA

ESKUBIDEAK

IZATEKO

#xLoPúblico

MANIFESTAZIO ESTATALA

MADRIL

EKANIAK 18

12:00 Cibeles-Pz. de España



www.cgt-lkn.org
www.rojoynegro.info
[@spcgteuskadi](https://twitter.com/spcgteuskadi)

Lanaren
Konfederakunde
Nagusia



ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN

ESKUBIDEAK IZATEKO ESKUBIDERIK AL DUGU?

- **Osasungintza publiko** unibertsala eta kalitatezko eskubideaz
- Askatasunean eta kritikotasunez heziko gaituen guztiontzako **hezkuntza publikokorako** eskubideaz
- **Menpekoak diren pertsonak** (nagusiak, haurrak, gaixoak edota bakarrik daudenak) bizi-kalitate duina bermatuko dien **zaintzak jasotzeko** eskubideaz
- Guztiok **pentsio publikoak** jasotzeko eskubideaz
- Gure hiri eta herrietan **garbiketa, ura, energia, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, haur hezkuntza, informazio eta komunikazio, garraioak**, eta abarreko **zerbitzu publikoak** enpresa publikoek eskaini eta kudeatzeko eskubidea, horien eraginkortasuna bermatuz betiere
- Pertsona guztiei adierazpen askatasuna eta interes orokorreko informazio askea bermatuko dioten **komunikazio publikorako** (irratiak, postak, telebistak, prentsa...) eskubideaz
- Guztiontzako errenta basikoa bermatua izateko eskubideaz

... ari gara.

Gure erantzuna argia da: **guztiok daukagu eskubide hauetarako eskubidea**, gizaki guztien oinarritzko eskubideak baitira.

Zergatik kendu dizkigute oinarritzko eskubide hauek eta nortzuk dira sarraski honen arduradunak?:

Jendearen biziraupena eta soldatapeko lanaz nolabaiteko independentzia ematen zuten **herri-ondasunak kentzea, kapitalismoaren sustraietan dagoelarik**.

Komunitateari gizarte osoaren ondasuna ziren oinarritzko zerbitzuak ukatu zizkioten, 70ko hamarkadan agertu zena, negozio pribatua bilakatzeko merkantilizazioa eta zerbitzu hauek hein batean eskaintzen zituzten enpresa publikoen privatizazioaren bidez egin zen.

Krisia aitzakiatzat hartuta, Gizarte Iruzur Handira garamatzate:

Kapitalismoak 2007tik aurrera sortutako **krisi-iruzurra, ukatze hori muturrera darama**, estatu espainiarrean 2009-2014 urteen arteko **gastu publikoaren murrizketa 78.000** milioi euroetara hurbiltzen delarik.

Murrizketak gehiengo sozialarentzat oso latzak dira. Herri-ondasun bat ere ez da salbatzen: hezkuntza, osasungintza, etxebizitza, langabeen diru-laguntzak, zaintzak, menpekotasuna, kultura, pensioak, inbertsioak publikok...

Bruselaren gidaritzapean, gobernu ezberdinek Gizarte Eskubideetan eragiten duten partiden gastu publikoan zuzenean murrizketak egin zituzten: oinarriko zerbitzu publikoak, gizarte babeserako diru-laguntzak eta gizarte politikak.

MURRIZKETAK GASTU PUBLIKOAN 2009-2014

SAILA	Milioi €tan
Etxebizitza politika	- 6.979 Milioi
Hezkuntza (hiru mailetan)	- 6.138 Milioi
Osasun arreta	- 5.564 Milioi
Familia eta haurtzaroaren inguruko politika	- 2.692 Milioi
Zerbitzu kulturalak	- 2.275 Milioi
Nazioarteko lankidetzak	- 2.060 Milioi
Oinarriko I+G inbertsioak	- 1.337 Milioi
Politika industrialak	- 1.206 Milioi
Gaixotasuna eta ezgaitasunak	- 1.099 Milioi
Langabeziarako diru-laguntzak	- 7.231 Milioi
Garraioen azpiegiturarako inbertsioak	- 10.789 Milioi
Gai ekonomikoen I+G inbertsioak	- 1.068 Milioi

Osasungintza gastua: 9.600 Milioi €koa, osasungintzako langileen soldaten 3.244 Milioi eurotako murrizketa (pertsonal gutxiago eta soldata txikiagoak) eta osasungintzan inbertsioa 2.144 Milioi eurotan murriztu zen.

Hezkuntza gastua: 7.394 Milioi €koa, soldatapeko langileek 3.705 Milioi € galduz (pertsonal gutxiago eta soldata txikiagoak) eta 2.235 Milioi €tan inbertsioa murriztuz.

Langabeziarako gastua 7.231 Milioi €tan erori zen, estaldura tasa bortizki jaitsiz (langabetuen %54ak soilik diru-laguntzen bat jasotzen du), diru-laguntzen zenbatekoa gero eta txikiagoak izanik.

Administrazio Publikoetan 156.000 enplegu suntsitu dira eta soldaten gastuan %17a galdu da. Azpi inbertsioa eta prekarizazio orokortua lanbide publiko osoan.

“Aldaketaren gobernuak” deiturikoak euren programetan herritarrei lapurtutako Eskubideak itzultzearen inguruan hitzeman zuten:

- **Gobernu lokalek utzitako eta privatizatutako zerbitzu Publikoen berrudalekotzea:** garbiketa, ura, energia, hondakinak, garraioa, ingurumena, etxebizitza, gizarte arreta, etab.
- **Oinarriko Eskubideen bermaketa:** legeak araututako guztiontzako osasungintza, hezkuntza, etxebizitza.
- **Konstituzioaren 135. artikulua indargabetzea,** PSOE-PP-CIU-EAJk 2011ren irailan adostutakoa, zeinetan ezartzen zuten zor ez-legitimo eta, kasu askotan, ilegala bat ordaintzeko beti dirua egongo dela.

- **Lan erreformen indargabetzea, bai 2010rekoa (PSOE) zein 2012koa (PP),** Administrazio eta Enpresa publiko guztietan langileen kaleratze librea baimentzen tenak.

Gaur eguneko errealitatea:

Zergen milioika euro bankuen eta putre-funtsetara bideratuz publikoaren ustiaketa egin da. Zerga horiek lehen gastu soziala ordaintzeko erabiltzen ziren, ondorioz, eskas eta ez eraginkortzat jotzen dituzten zerbitzuak kaltetu dituzte. Haiek izan dira eskasiaren kontzientzia sortu eta gehiengo soziala “merkatuari atea zabaltzera” bultzatu dutenak.

Estatu honetako politika fiskalak, Sozietateen Zergen bitartez nagusiki, 2004 eta 2014 urteen artean bide honetatik bildutakoa %58a (19.173 Milioi euro) erori da. Denbora-tarte horretan enpresen irabazia %1ean bakarrik jaitsi delarik.

Ibex35-ko parte diren 35 konpainietatik 17k ez dute ezer ez ordaintzen zerga honengatik, nahiz eta horietako hiruk bakarrik 2014ko emaitzen kontuan galerak izan.

Politika fiskalek kapital handiei saihestea baimentzen diete, adibidez, kapitalen desbideratzea paradisu fisikaletara 2013 eta 2014ean Espainian hasi zen %2.000ean, batez ere Caiman Uharteetan (1.969 Milioi euro, Alemanian egin diren inbertsioak 64 bider baino gehiago). Oxfam-ek kalkulatu du Caiman Uharteetara doanarekin, Espainiako diru-kutxa publikotan 144 eta 550 Milioi euro artean sartu zitekeen. **“Horrekin Espainian dagoen biztanleri etorkin guztientzako osasun arreta bermatu zitekeen”**

Pribatizazioa, zerbitzu publikoen kanporaketak, edozein bide formal-juridikotik bada ere, **Konstituzioaren 135. artikulua moldaketan eusten da.** Horrek estatuaren Administrazio guztiak bridatzen ditu, Bruselak estatu espainiarri ezarritako zorpetzea eta defizitaren gaintzea oztopatuz, Zerbitzu Publikoetarako beharrezkoak diren lanpostuak estaltzeko deialdien izozketa.

Guztionezko gizarte eskubide gisa Zerbitzuen defentsak, unibertsaltasun, nahikotasun eta eraginkortasunaren zein erabiltzaileen eta langileen parte-hartzearen alde apustu egin behar dugula **argi uzten digu.**

Kaltetutako (Milioiak), herri mugimenduetako eta zinez klase sindikatu etako pertsona guztien borroka, guztiona dena birjabetzea lortzeko beharrezkoa den 180ºko bira emateko berme bakarra da.



**Lanaren
Konfederakunde
Nagusia**

Borroka da bidea

www.cgt-lkn.org
www.rojoynegro.info
[@spcgteuskadi](https://twitter.com/spcgteuskadi)